

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

### IDAZKARITZA NAGUSIA

**Foru Gobernu Kontseiluak 2020ko ekainaren 9ko ohiko bilkuran onartutako ebazpen laburpena**

– **Foru dekretuak:**

**ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN  
ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA**

Foru Gobernu Kontseiluaren 18/2020 Foru Dekretua, ekainaren 9koa. Aldatzea Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 49/2019 Foru Dekretua, onesten dituen Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren eskumen esparruan ematen diren dirulaguntzak arautzeko oinarri orokorrak.

**NEKAZARITZA SAILA**

Foru Gobernu Kontseiluaren 19/2020 Foru Dekretua, ekainaren 9koa. Aldatzea mahasti zaharrak mantentzeko eta kontserbatzeko laguntzen oinarri arautzaileak, zeinak onetsi baitziren Kontseiluaren ekainaren 26ko 30/2018 Foru Dekretuaren bidez.

– **Erabakiak:**

**EKONOMIA GARAPENAREN, BERRIKUNTZAREN ETA DEMOGRAFIA ERRONKAREN SAILA**

Foru Gobernu Kontseiluaren 236/2020 Erabakia, ekainaren 9koa. Onespena ematea interesdunak abenduaren 27ko 826/2019 Erabakiaren aurka jarritako berraztertze errekurtsoa ezesteari.

Foru Gobernu Kontseiluaren 237/2020 Erabakia, ekainaren 9koa. Onespena ematea Mendialdeko Plan Aitzindariaren proiektua egikaritzeko Arabako Mendialdeko Kuadrillari emandako epea luzatzei.

**ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN  
ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA**

Foru Gobernu Kontseiluaren 238/2020 Erabakia, ekainaren 9koa. Indarrrik gabe uztea, gerora agertutako arrazoiengatik, turismoa sustatzeko jardueretarako laguntzen deialdia, zeina irabazteko xederik gabeko elkarteei eta erakundeei zuzendua baitago.

**OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA**

Foru Gobernu Kontseiluaren 239/2020 Erabakia, ekainaren 9koa. Onespena ematea Kontuhartzaitza eta Kontrol Zerbitzutik eragozpen txostenak jaso dituzten zenbait ekintza burutu baliozkotzei.

Foru Gobernu Kontseiluaren 240/2020 Erabakia, ekainaren 9koa. Onespena ematea Gizarte Ongizaterako Foru Erakundetik desatxikitzei Gasteizko Alaba Jeneralaren kaleko 10 zenbakian dauden higiezin batzuk, eta haiek Gizarte Politiken Sailari atxikitzei.

## LURRALDE OREKAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 241/2020 Erabakia, ekainaren 9koa. Onespena ematea Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeentzako laguntzen ebazpenari, auzo harremanak sustatzeko ekimenetarako 2020ko deialdiaren barruan.

Foru Gobernu Kontseiluaren 242/2020 Erabakia, ekainaren 9koa. Onespena ematea obra txikiak gauzatzeko 2020ko programako dirulaguntzak emateko ebazpenari.

## BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 243/2020 Erabakia, ekainaren 9koa. Deskontsignatu eta ordaintzea A-625 errepidea 357,30 kilometro puntutik 354,22 kilometro puntura artean egokitzeko eraikuntza proiektuaren eraginpeko 42/000 finkaren balio justua.

## GIZARTE POLITIKEN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 244/2020 Erabakia, ekainaren 9koa. Ezestea interesdunak Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoaren lanpostu zerrenda aldatzeari buruzko ekainaren 25eko 420/2019 Erabakiaren aurka jarritako berraztertze errekurtsua.

## NEKAZARITZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 245/2020 Erabakia, ekainaren 9koa. Onespena ematea Arabako Foru Aldundiaren Landa Bideen Erregistroan dauden bideen mantentze lanetarako zerbitzuaren kontratuaren amaierako likidazioari eta bermeak itzultzeari.

Foru Gobernu Kontseiluaren 246/2020 Erabakia, ekainaren 9koa. Onespena ematea luzatzeari Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapenerako 2015-2020 Planaren barruan interesatutako nekazari gazteek enpresak sortzeko emandako laguntzaren epea, zeina Kontseiluaren martxoaren 13ko 11/2018 Foru Dekretuaren bidez onetsi baitzen.

Foru Gobernu Kontseiluaren 247/2020 Erabakia, ekainaren 9koa. Ez onartzea interesdunak 510/2017 Erabakiaren aurka aurkeztutako errekurtsua (510/2017 Erabakia, irailaren 12koa, nekazari gazteek enpresak sortzeko laguntzen deialdia ebatzi zuena).

Foru Gobernu Kontseiluaren 248/2020 Erabakia, ekainaren 9koa. Ezestea interesdunak 860/2019 Erabakiaren aurka jarritako berraztertze errekurtsua (860/2019 Erabakia, abenduaren 27koa, muga naturalak eta berezko beste muga batzuk dituzten zonetan dauden nekazaritza ustiatzietarako laguntzei buruzkoa).

Foru Gobernu Kontseiluaren 249/2020 Erabakia, ekainaren 9koa. Baiestea interesdunak 861/2019 Erabakiaren aurka jarritako berraztertze errekurtsua (861/2019 Erabakia, abenduaren 27koa, nekazaritza-ingurumen eta klimako laguntzen eta nekazaritza ekologikorako laguntzen deialdiari buruzkoa).